



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: SAXOFOIA

2022-03-14

Nori zuzenduak?

Graduko Saxofoi interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2022ko martxoaren 10ean** amaituko da.

Jardunaldiaren helburua

Saxofoi interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezaqutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

LORENTE, Miguel Ángel

Thomas Barthelemy eta José Manuel Sánchez
irakasleek ere parte hartuko dute

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak,osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30-13:30 Miguel Ángel Lorente eta Thomas Barthélémy irakasleek Musikeneko ikasleei emango dieten eskolak ikustea

13:30-15:00 Parte hartzaileekin, irakasleekin eta ikasleekin bazkaria

15:00-18:00 Miguel Ángel Lorente eta Thomas Barthélémy irakasleek banakako eskolak emango dituzte hala eskatzen duten parte hartzaileentzat

18:00 Musikeneko saxofoi ikasleen eskutik emanaldia

Saxofoi jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:
uarozena@musikene.eus